

BOOKTEGI

# ibili

Henry  
David  
Thoreau

ITZULPENA:  
Leire Zapiain Egaña

HITZAURREA:  
Antonio Casado da Rocha



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

HENRY DAVID THOREAU

**ibili**

ITZULPENA:

Leire Zapiain Egaña

HITZAURREA:

Antonio Casado da Rocha

# Pentsatzeko ibili

Antonio Casado da Rocha

Henry D. Thoreau oinez ezagutzen da. Nire biografian gogoratzen dut Walter Harding-ek esan ohi zuela *Walking* zela Thoreauren pentsamendurako sarrerarik onena: entsegu hau irakurtzen baduzu, *Wild Apples*-ekin batera Thoreauk inprimategira bidali zuen azkena, *Walden*-en uretan beldurrik gabe murgil zaitezke. Lehen begi kolpean, *Walking* oinezko txangoei buruzko entsegua dela dirudi; izan ere, 1863an *Excursions* liburuan argitaratu zuten, Thoreau jada hilda zegoelarik. Baina epistemologian ere esperimendu geopoetiko bat da, dakiguna nola dakigunaren peskizan, non Thoreauk pentsamenduaren eta esperientziaren, ezagutzaren eta ezjakintasunaren arteko oreka naturalaren gako bilatzen duen. Oreka edo sendabide hori erritmo naturaletara egokitzean datzala dio Thoreauk, “gauak eramane dezakeen egunaren proportzioan aurkitu behar dela, neguak udarena, pentsamenduak esperientziarena”. Dakiguna eta ez dakiguna ziklo horren faseak baino ez dira, eta biak behar ditugu, ibiltzeko bi hankak behar ditugun moduan.

Laura Walls-ek bere biografian azaltzen duenez, Thoreaurentzat ezagutzan aurrera egiteko ezinbestekoa zen norberak dakienetik askatzen ikastea. Orduan bakarrik iristen da “jakintza goren” horretara, Adimenarekin sentitzea dena (enpatia edo “harmonia” bertsio honetan, *Sympathy with Intelligence* jatorrizkoan): “Ez dakit jakintza goren hori heltzen ote den zerbait definitiboagora, orain arte Jakintza deitu dugun ororen ezgaitasunaren bat-bateko errebelazio batera baino –aurkitzera gauza gehiago daudela zeruan eta lurrean gure filosofiak amestutakoak baino. Eguzkiak lanbroa argitzea da. Gizakiak ezin du jakin, horretan baino zentzu garaigoan, eguzkiari lasai eta kalterik gabe begiratu ezin dion bezala.”

Jakintza goren hori, jakina, Thoreauk *Walden*en kapitulu batean aipatzen dituen “lege gorenak” delakoarekin lotuta dago. *Walking*en azpi testu politikoa esklabotzari buruzko eztabaida da, eta 1851n Thoreauren (hein batean) laguna eta maisua zen Ralph Waldo Emersonek esamolde hori erabili zuen onartu berri zen Esklabo Fugitiboari buruzko Legearen aurka egiteko. Transzendentalistek, Thoreau barne, bere egin zuten Konstituzioa baino lege moral altuago dagoela aldarrikapen hori. Bere egunkarian *Walking* osatu zuen hilabete horietan, bere burua aske hartzen duen baina esklabotzari eusten dion gizarte batean bizi izatearen paradoxa landu zuen Thoreauk. Wallsek dioen moduan, irtenbidea benetako askatasuneko espazio bat aldarrikatzea izan zen, egunero espazio horretara iristea ahalbidetuko digun bizimodu bat: ibiltzea, alegia. Azpimarragarria da pasarte hau:

“Aztoratu egiten naiz basoan kilometro pare bat ibili naizenean fisikoki, izpiritualki haraino iritsi gabe. Nire arratsaldeko ibilaldian gustatuko litzaidake goizeko zeregin eta gizartearekiko betebeharrak guztiak ahaztea. Baina batzuetan ezin dut herria gainetik aise

kendu. Lanen baten pentsamendua datorkit burura eta jadanik ez nago nire gorputza dagoen lekuan, baizik nire zentzumenetatik at. Nire ibilaldietan, nire zentzumenetara itzuli nahi nuke. Zertan nabil basoan, baldin eta basotik kanpoko zerbaiti buruz pentsatzen badihardut?”

Thoreauren bizitzan tentsio hori gutxienez 1842tik antzematen da, Henry bere anaia Johnen heriotzagatik dolu betean zegoenean. Bere egunkarian naturara iristerik ez lortzeaz kexatzen zen, “beti erretiratzen baita nik aurrera egin ahala”. Gorputza eta gogoia bakoitza bere aldetik zihoazen, eta “elkar gogaitzen dute, praktikarik gabeko biki siamdar gisa, elkarrekin batera ibili behar zutenean”. Otsailaren 20ko eta 21eko pasarteek funtsezko irakaspen bat ekartzen digute: gogoia eta gorputza batera ibiltzeko, Thoreau ezin da naturan barneratu haren jabe egiteko edo haren sekretua ezagutzeko asmoz. Hona hemen paradoxa berria: ibiltzeko, gelditu behar du Thoreauk. Gelditu, burua lasaitzeko; gorputza zabaltzeko, eta zentzumenak argitzeko. Gelditu, benetan entzun ahal izateko.

Waldeneko etxean sartu behar izan zuen moduan, etxetik ateratzeko apologia egiten du Thoreauk *Walkingen*. Konfinamendu eta konfinamendu osteko garaietarako irakurketa ezin aproposagoa dugu, beraz, *Ibili* hau. Txalogarria eta eskertzekoa da itzultzaileak egin duen lan dotorea, Thoreauren hitz joko eta aipamenez beteriko idazkera trinkoa euskaratzea ez baita inondik inora erraza. Gainera, generoaren ikuspegitik irakurketa berriak ahalbideratuko dituelakoan nago: “Ez dakit nola jasan dezaketen emakumeek, gizonak baino etxean are konfinatuagoak”, idatzi baitzuen Thoreauk.

# Ibili

Zerbait esan nahi nuke Naturaren alde, erabateko askatasunaren eta basatasunaren alde, soilik zibila den askatasun eta kultura batekin kontrastean; gizakia Naturako bizilagun gisa ikusi, Naturako zati eta esparru gisa, ez horrenbeste gizarteko kide gisa. Muturreko adierazpen bat egin nahi nuke, enfasia zilegi bazait, aski txapeldun baitago zibilizazioaren aldeko: apaiza eta eskola-kontseilua eta zuetako bakoitza arduratuko da hura babesteaz.

Nire bizitzan ez dut pertsona bat edo bi baino topatu ibiltzeko artea ulertzen duena, hau da, oinez ibiltzekoa; jenioa zutenak, nolabait esateko, *sauntering* ibiltzeko, eta ederra da nondik eratorri den hitz hori: “Jende alferra, alderrai zebilena landaz landa, Erdi Aroan, karitate eskean, *à la Sainte Terre* zihoalako aitzakiaz”, umeez garrasi egiten zuten arte “horra hor *Sainte-Terrer* bat”, Saunterer bat, erromes bat. Beren ibilaldietan inoiz Lur Santura ez doazenak, halako itxurak egin arren, ez dira noski alfer eta arlote hutsak baino; aitzitik, hara doazenak sauntererrak dira zentzu onean, nik adierazitako horretan. Batzuek, ordea, hitz hori sans terre-tik eratoritzen dute, lur edo etxerik gabea, zeinak hortaz esan nahiko luke, zentzu onean, etxe jakinik gabekoa izan arren nonahi sentitzen dena berdin etxean. Hori baita sauntering arrakastatsuen sekretua. Denbora guztian etxean lasai mugitu gabe dagoena alferren artean handiena izan daiteke; baina sauntererra, zentzu onean, ez da sigi-saga dabilen ibaia baino alferragoa, arretaz dabilena itsasorako bide laburrenaren bila. Dena den, nik nahiago dut lehenbizikoa; eratorpen probableena, hain zuzen ere. Ibilaldi bakoitza gurutzada antzeko bat baita, gure baitako Piarres Eremitaren batek aldarrikatua, abian jarri eta Lur Santua fedegabeen eskuetatik berreskuratzeko.

Gaur egun, egia da, gu ez gara, ibiltariok barne, bihotz ahuleko gurutzatuak baino, pertseberantziarik gabe ekiten baitiegu ekimen amaigabeei. Gure espedizioak ez dira paseoak baino, eta arratsaldean berriro itzultzen gara betiko leku kuttunera, abiapuntura. Ibilaldi erdia ez da gure urratsak desagitea baizik. Ibilaldi laburrena luzatu beharko genuke, ausaz, izpiritu abenturazale hilezinaz, inoiz ez itzultzeko, prest gure bihotz baltsamatuak erlikia huts gisa itzul daitezen atzera gure erresuma desolatuetara. Ama eta aita uzteko prest bazaude, ahizpa eta anai-arrebak, eta bikotekidea eta umea eta lagunak, eta berriro inoiz ez ikusteko –zorrek kitatu badituzu, eta testamentua egin, eta zure afera guztiak txukun utzi, eta pertsona askea bazara, orduan prest zaude ibilaldi baterako.

Nire esperientzia propiora mugatzeko, nire lagunak eta nik, noizbehinka lagun bat izaten baitut, gozatu egiten dugu gure burua irudikatuz ordena berri bateko zaldun gisa, edo hobeto esanda zahar batekoak –ez Ekuestreak, edo Chevalierrak, ez Ritter edo Zaldizkoak, baizik eta Ibiltariak, klase bat antzinagokoa eta ohoretsuagoa, espero dut. Izpiritu zaldun eta heroikoa, antzina Zaldizkoari zegokiona, gaur egun, antza denez, Ibiltariarengan bizi da, edo agian berarengana

jaitsi da; ez Zalduna, baizik Ibiltaria, Alderraia. Laugarren estatu gisako bat da, Elizatik, Estatutik eta Populutik at.

Sumatu dugu gu garela inguru hauetan arte noble hori praktikatzen dugun ia bakarrak; nahiz eta, egia esan, nire herrikide gehienek gustuko luketen noizbehinka ni bezala ibiltzea, haien baieztapenak sinesgarritzat jotzen badira, behintzat; baina ezin dute. Ez dago beharrezkoak diren aisialdia, askatasuna eta independentzia eros ditzakeen aberastasunik, eta lanbide honen funtsa dira. Jainkoaren graziaz dator soilik. Ibiltari bilakatzeak zeruko agindu zuzen bat eskatzen du. Ibiltarien familian jaio behar izan duzu. *Ambulator nascitur, non fit* [Ibiltaria jaio egiten da, ez da egiten]. Nire herrikide batzuek, egia da, orain dela hamar urteko zenbait ibilaldi oroit ditzakete, eta deskribatu egin dizkirate, zeinetan hain bedeinkatuak izan ziren, non ordu erdiz galdu baitziren basoan; baina oso ondo dakit orduz geroztik errepidera mugatu direla, direnak direla ibiltarien klase bikaineko kide izateko eduki ditzatekeen pretentsioak. Zalantzarik gabe, momentu batez, aurreko egoera existentzial baten oroitzapenak goraldtu zituzten, haiek ere basozainak eta iheslariak zirenekoa.

“Baso berdera etorri zenean,

Goiz alai batez,

Txorien kantua entzun zuen,

Pozez kantari.

Aspaldi, esan zuen Robinek,

Izan nintzen hemen azkenekoz;

Zelatan egon nintzen pixka batean,

Orein ilunaren aurka tiro egiteko.”

Uste dut ezin diedala nire osasunari eta nire animoari eutsi, baldin eta ez banaiz ganoraz ibiltzen gutxienez lau orduz –eta normalean luzaroago izaten da–, basoan barrena eta muinoen eta zelaien gainetatik, konpromiso mundutar orotatik erabat aske. Esan diezadakezue, arriskurik gabe, “zentimo bat zure pentsamenduen truke, edo mila txanpon”. Batzuetan, gogoratzen zaidanean mekanikariak eta dendariak beren dendetan gelditzen direla ez soilik goiz osoz, ezpada arratsalde osoz ere, haietako asko eserita, hankak gurutzatuta -hankak haien gainean esertzeko egin balira bezala, eta ez zutitzeko edo ibiltzeko-, pentsatzen dut nolabaiteko mirespena merezi dutela, ez dutelako aspaldi beren buruaz beste egin.

Ni ezin naiz nire gelan egun bakar batean egon sorgortzen hasi gabe, eta batzuetan, ibilaldi baterako denbora lapurtu dudanean, hamaikagarren ordurako edo arratsaldeko laueterako, eguna salbatzeko beranduegi, gaueko itzalak jadanik nahasten hasiak direnean eguneko argitasunarekin, sentitu izan dut ordaindu beharreko bekatu bat egin dudala -aitor dut nire bizilagunen erresistentziaren ahalak harritzen nauela, zer esanik ez haien sorgortasun moralak, beren burua egun osoan dendetan eta bulegoetan konfinatzen dutenak, asteetan eta hilabeteetan, are urte luzeetan ere. Ez dakit zer materia-motaz dauden eginak, hor eserita orain, arratsaldeko hiruretan, goizeko hirurak balira bezala. Bonapartek goizaldeko hiruretako adoreari buruz hitz egin dezake, baina hori ez da ezer alderatuz gero arratsaldeko hiruretan bere buruaren aurrez aurre atseginez eser daitekeenaren adorearen aldean, goiz osoa harekin pasa eta gero, edota soldadu-tropa bati goseagatik amore emanaraztearen aldean, zeinarekin lotua baitzaude sinpatiazko esteka hain estuen bidez. Harritzen nau ordu horren inguruan, edo demagun arratsaldeko laurak eta bostak bitartean, goizeko egunkarietarako beranduegi eta arratsaldekoetarako goizegi, ez entzuteak eztanda orokor bat kale osoan barrena, nozio eta erokeria zaharkitu eta etxetiarren legio bat lau haizetara sakabanatzen, giroa garbituz, gaitza bere kabuz senda dadin.

Ez dakit nola jasan dezaketen emakumeek, gizonak baino etxean are konfinatuagoak; baina badut arrazoirik susmatzeko gehienek ez dutela inondik inora jasaten. Udako arratsalde batean goiz, gure jantzietako gonetatik herriko hautsa astintzen egon garenean, fatxada Doriko edo Gotiko aratzak dituzten etxeen aurretik presaka pasatzean, hain itxura lasaia duten etxeak, orduan nire lagunak xuxurlatzen dit ziurrenik etxeko jende guztia ordu horretarako oheratua izango dela. Orduan estimatzen dut arkitekturaren edertasuna eta loria, inoiz ez dena erretiratzen, aitzitik, betiko dirauena zutik eta tente, lo daudenak zaintzen.

Zalantzarik gabe, izaerak eta, oroz gain, adinak, eragin handia dute horretan. Gizaki bat nagusitzen doan heinean, handitu egiten da geldi geratzeko eta etxe barruko lanbideetan jarduteko duen gaitasuna. Bizitzaren arratsa hurbildu ahala, arratsaldekoago bihurtzen da ohituretan, azkenean, doi ilunabarra baino lehen, abian jarri eta ordu erdian egiten duen arte behar besteko ibilaldia.

Baina nik diodan ibilaldiak ez du inongo zerikusirik ariketa fisiko deritzonarekin, barra astunak edo aulkiak altxatzea kasu, eriak botika agindutako orduetan hartzen duen legez; aldiz, berez da eguneko ekimena eta abentura. Ariketa egin nahi baduzu, zoaz bizitzaren iturrien bila. Pentsatzea ere gizaki batek bere osasunaren alde barra astunak jasotzen dituela, ohartzeko iturri horiek borborka dihardutela gizaki horri pentsaezinak zaizkion urrutiko larreetan!

Gainera, gameluak bezala ibili behar duzu, ibili bitartean hausnartzen duen piztia bakarra baita, esaten denez. Bidaiari batek Wordsworthen zerbitzariari eskatu zionean bere nagusiaren



ikasgela erakusteko, hauxe erantzun zion: “Hemen duzu haren liburutegia, baina haren ikasgela kanpoan da.”

Kanpoan luzaro bizitzeak, eguzki eta haizearen pean, nolabaiteko zakartasuna eragiten du, duda barik, azal lodi bat hazten du gure izaeraren kualitate finagoen gainean, hala nola aurpegian eta eskuetan; era berean, eskulan gogorrek eskuei ukimenean sentikortasun apur bat lapurtzen die. Horrela gelditzeak etxean, bestalde, biguntasuna eta leuntasuna eragin ditzake, zer esanik ez azalaren mehetasuna, zenbait inpresioerekiko sentiberatasun handiago batekin batera. Beharbada sentiberagoak izango ginateke gure adimenaren eta moralaren hazkuntzarako eragin garrantzitsu batzuekin, baldin eguzkiak ahulago egin izan baligu distira eta haizeak leunago jo; eta gai atsegina da, zalantzarik gabe, azal leunaren eta azal latzaren arteko proportzio egokia zehaztea. Baina nik uste nahiko agudo eroriko den zarakarra dela – sendabide naturala gauak eraman dezakeen egunaren proportzioan aurkitu behar dela, neguak udarena, pentsamenduak esperientziarena. Askoz ere aire eta eguzki-argi gehiago egongo da gure pentsamenduetan. Langilearen ahur babatsuak adituagoak dira alferkeriaren hatz bigunak baino, buru-errespetuari eta heroitasun-ehun finagoei dagokienez, zeinen ukituak bihotza hunkitzen duen. Soilik sentimentalkeria hutsalak pasatzen du eguna ohean eta ikusten du zuri bere burua, esperientziaren beltzarantze eta babetatik urruti.

Ibiltzen garenean, berez jotzen dugu zelai eta basoetarantz: zer bilakatuko ginateke, ez bagina ibiliko lorategietan edo merkataritza-guneetan baino? Are, filosofoen sekta batzuek basoa beraiengana erakartzeko beharra sentitu zuten, haiek ez zirenez basora joaten. “Hiribideetan zuhaitziak landatu zituzten, eta bananondoak”, non subdiales ambulationes-ak egiten baitzituzten (zerupeko txangoak), aireari irekitako atarietan. Noski, ez du ezertarako balio gure urratsak basorantz zuzentzeak, urratsek berek ez bagaramatzate hara. Aztoratu egiten naiz basoan kilometro pare bat ibili naizenean fisikoki, izpiritualki haraino iritsi gabe. Nire arratsaldeko ibilaldian gustatuko litzaidake goizeko zeregin eta gizartearekiko betebeharrak guztiak ahaztea. Baina batzuetan ezin dut herria gainetik aise kendu. Lanen baten pentsamendua datorrit burura eta jadanik ez nago nire gorputza dagoen lekuan, baizik nire zentzumenetatik at. Nire ibilaldietan, nire zentzumenetara itzuli nahi nuke. Zertan nabil basoan, baldin eta basotik kanpoko zerbaiti buruz pentsatzen badihardut? Susmoak ditut nire buruaz, eta ezin dut dardara eragotzi hain inplikaturak aurkitzen dudanean are on deritzegun lanetan –hori ere gerta baitaiteke noizbehinka.

Nire eskualdeak ibilaldi on ugari eskaintzen ditu; eta urte luzeetan ia egunero ibili naizen arren, eta batzuetan hainbat egunez jarraian, oraindik ez ditut agortu. Aukera zeharo berri batek biziki pozten nau, eta edozein arratsaldetan lor dezaket hori. Bizpahiru orduko ibilaldiak eramango nau, beti espero dudana bezain arrotza den landa batera. Aurretik ikusi gabeko baserri bakarti

bat, batzuetan, Dahomey-ko Erregearen jabetzak bezain ederra da. Izatez, nolabaiteko harmonia hauteman daiteke hauen artean: hamar miliako itzulinguruan edo arratsaldeko ibilaldi baten mugen baitan dauden paisaia-aukerak, eta giza bizitzaren hirurogeita hamar urteak. Inoiz ez zaizkizu guztiz ezagunak egingo.

Gaur egun, giza hobekuntzak omen diren guztiek, hala nola etxegintza eta baso eta zuhaitz handien mozketak, paisaia desitxuratu egiten dute, argiki eta garbiki, eta gero eta otzanagoa eta arruntagoa bilakatzen dute. Herri bat, hesiak erretzetik eta basoa zutik uztetik hasiko litzatekeena! Hesiak erdi suntsituak ikusi nituen, haien hondarrak larrearen erdian galduak, eta mundutar miserablen bat bere mugak lur-neurtzaile batekin zaintzen, bien bitartean zerua bere inguruan ageri zela, eta ez zituen aingeruak atzera eta aurrera ikusten, aitzitik, zutoin-zulo baten bila zebilen paradisuaren erdian. Berriz begiratu nuen, eta zutik ikusi nuen Estigiar padura zingiratsu baten erdian, deabruz inguratua, eta zalantzarik ez, aurkituak zituen bere mugak, hiru harri txiki, non hesola bat baitzegoen iltzaturik, eta, hurbilago begiratzuz, ikusi nuen lur-neurtzailea Iluntasunaren Printzea zela.

Aise ibil naiteke hamar, hamabost, hogei, edozenbat kilometro, neure atetik hasita, inongo etxetik hurbil igaro gabe, biderik gurutzatu gabe, azeriak eta bisoiak egiten dutenean izan ezik: aurrena ibai-ertzean zehar, eta gero erreka, eta gero larrea eta basaldea. Nire auzoan badira biztanlerik gabeko hainbat kilometro koadro. Muino askotatik ikus ditzaket, urrutian, zibilizazioa eta giza bizilekuak. Nekazariak eta beren zereginak ia ez dira nabarmenagoak marmotak eta beren gordelekuak baino. Atsegin zait ikustea zein leku txikia betetzen duten paisaian gizakiak eta bere kontuek, elizak eta estatuak eta eskolak, salerosketak eta merkataritzak, eta manufakturak eta nekazaritzak, are politikak, horien denen artean kezkarriena. Politika ez da alor estu bat baizik, eta are estuagoa den errepide batek zaramatza hara. Batzuetan hara bideratzen dut bidaiaria. Politika-mundura joan nahi bazenu, jarrai ezazu errepide handia, jarraitu merkataria horri, gorde bere hautsa zure begietan, eta bertara bideratuko zaitu zuzenean; zeren horren lekua ere mugatua baita, eta ez du espazio osoa hartzen. Basora noalarik, politikatik pasatzen naiz babarrun-sail batetik bezala, eta ahaztu egiten dut. Ordu erdi batean hel naiteke gizakia urte betean egon ez den lurrazalaren zati batera, eta bertan, halatan, ez dago politikarik, pertsona baten zigarro-kearen antzekoa baita.

*Village*-a, herrixka, bideek harako joera duten lekua da, errepidearen zabalkuntza gisako bat, aintzira ibaiari zaiona. Gorputza da, eta bideak haren beso eta hankak, leku trivial edo quadrivial bat, bidaiarien pasagune eta ostatu merke. *Village* hitza latineko *villa*-tik dator, zeina, “bide”-rekin batera, *via*, edo antzinagoko *ved* eta *vella*, Varro-k *veho*-tik eratortzen duen, garraiatzea, zeren villatik eta villara garraiatzen baitira gauzak. Bizimodua mandazain gisa ateratzen zutenen gainean esaten zen *vellaturam facere*. Hortik datoz, halaber, latineko *vilis* hitza eta ingeleseko *vile*, baita *villain* ere (doilor, zital). Horrek iradokitzen du herritarrak zer

degenerazio motari lotzen zitzaizkion. Albotik eta gaineratik doakien bidaiak higitzen ditu, nahiz eta beraiek bidaiatu ez.

Batzuk ez dira bat ere ibiltzen; beste batzuk errepidean ibiltzen dira; gutxi batzuk lursailak zeharkatzen dituzte. Bidezabalak zaldi eta enpresarientzat daude eginak. Ni ez naiz bidezabaletan maiz ibiltzen, ez bainabil presaz haiek zaramatzaten taberna, janari-denda, ukuilu edo biltegiren batera iristeko. Bidaiatzeko zaldi ona naiz, baina aukeran ez bidezabaletan. Paisaia-pintoreak bidezabala adierazteko gizakien figurak erabiltzen ditu. Ezingo luke nire figura horretarako erabilii. Naturan ibiltzen naiz profeta eta poeta zaharrak bezala, Manu, Moises, Homero, Chaucer. Amerika deitu dezakezue, baina ez da Amerika; ez Ameriko Vespuziok, ez Kolonek ez gainerakoek ez zuten hura aurkitu. Egia handiagoa dago horren inguruan mitologian, nik ikusitako Amerikako edozein historia aizunetan baino.

Hala ere, badira bide zahar gutxi batzuk, nondik probetxuz ibil daitekeen, norabait baleramate bezala, ia etenda dauden honetan. Bada Marlborough-eko Bide Zaharra, jada ez doana Marlboroughera, nik uste, naraman lekua ez baldin bada hain zuzen Marlborough. Hemen hura aipatzeak ausardia eskatzen du, suposatzen baitut herri bakoitzean horrelako bidezabal bat edo pare bat daudela.

#### MARLBOROUGH-eko BIDEZABAL ZAHARRA

Behiala diru bila aitzurtu zuten lekuan,  
Baina inoiz deus aurkitu gabe;  
Non batzuetan tropel martzialek  
Desfilatu zuten,  
Eta Elijah Woodek ere bai,  
Ez onerako, beldur naiz,  
Ez da beste inor geratzen,  
Elisha Dugan salbu, -  
Oi, ohitura basatietako gizona,  
Eperrak eta untxiak,  
Ez duena inongo kezkarik,  
Tranpak jartzea baino,  
Bakar-bakarrik bizi dena,  
Funtsezkotik hurbil,  
Eta bizona gozo den lekuan  
Eta janaria on.

Udaberriak odola nahasten didanean  
Bidaiatzeko grinaz,

Nahikoa legar jaso dezaket  
Marlborougheko Bide Zaharrear.  
Inork ez du kontuan hartzen  
Inork ez baitu ibiltzen;  
Bide bizi bat da,  
Kristauek dioten legez.

Ez dira asko  
Bide horretan sartzen,  
Soilik Quin irlandarraren  
Gonbidatuak.

Zer da, zer da  
Hor kanpoko norabide bat baino,  
Eta norabait joateko  
Aukera hutsa?

Mugarri handiak,  
Baina bidaiaririk ez;  
Herrietako zenotafioak,  
Izenak koroan.

Merezi du ikustera joatea  
Non egon zaitezkeen.

Zein erregek  
Egin ote zuen,  
Galdetzen diot nire buruari oraindik;  
Altxatu, nola edo noiz,  
Zein zinegotzirekin,  
Gourgas edo Lee,  
Clark edo Darby?

Betiereko zerbait edukitzeko  
Handia da ahalegina;

Hilarri zuriak,  
Non bidaiari batek auhen egin baitezake,  
Eta esaldi batean  
Dakigun guztia grabatu;  
Zeina beste batek irakurri ahalko duen,

Bere behar muturrekoan.

Ezagutzen ditut lerro bat edo bi  
Balio dezaketenak,  
Lur horietan barrena  
Zutik iraun lezakeen literatura  
Gizaki batek gogora lezakeena  
Hurrengo abendura arte,  
Eta udaberrian berriro irakurri,  
Urtzaroaren ondoren.

Fantasia zabalduz  
Uzten baduzu etxea,  
Munduari bira eman diezaiokezu  
Marlborougheko Bidezabal zaharretik.

Egun, auzo honetako zati handiena ez da jabego pribatua; paisaia ez da inorena, eta ibiltariak askatasun erlatibo bat gozatzen du. Baina agian etorriko da eguna non jolastoki deiturikoetan zatituko duten, non soilik gutxi batzuek gozatuko duten atsegin mugatu eta eskusibo bat – hesiak, tranpak eta gizakia errepide publikoan konfinatzeko asmatuiko beste hainbat trepetan biderkatuko direnean, eta Jainkoaren lurrazalean ibiltzea hartuko denean jaun baten eremuan sartzeko saiakeratzen. Zerbait eskusiboki gozatzea, normalean, zure burua benetako gozamenetik egozte da. Hortaz, balia ditzagun gure aukerak zorigaitzoko egun hori heldu baino lehen.

Zergatik izaten da batzuetan hain zaila norantz ibiliko garen erabakitzea? Uste dut naturan magnetismo sumaezin bat dagoela, zeinak, haren aurrean inkontzienteki amore emanez gero, zuzen bideratuko baikaitu. Ez dio berdin zein bide hartzen dugun. Badago bide egoki bat; ordea, arduragabekeriagatik eta ergelkeriagatik, oso joera handia dugu okerrekoa hartzeko. Gustura hartuko genuke bide egoki hori, mundu erreala honetan inoiz hartu ez duguna, mundu ideal eta barnekoan hartu nahi genukeen patuaren sinbolo perfektua dena; eta batzuetan, duda barik, zaila egiten zaigu geure norabidea aukeratzea, oraindik ez da-eta gure gogoan garbi existitzen.

Etiketetik ibiltzera irteten naizelarik, zalantzan oraindik nire urratsak norantz emango ditudan, eta nire burua nire senaren menpe uzten dudalarik, senak nire ordean erabaki dezan, aurkitzen dut, arraro eta bitxi eman badezake ere, azkenean eta ezinbestean hego-mendebalderantz jotzen dudala, norabide horretan dagoen baso edo larre edo bazkaleku abandonatu edo muino bakarti jakin baterantz. Nire orratza geldiro egonkortzen da, gradu gutxi batzuk aldatzen da, eta ez du beti zehazki hego-mendebaldea seinalatzen, egia da, eta badu autoritatea aldatzea

hori onartua izan dakion, baina beti finkatuko da mendebaldearen eta hego-mendebaldearen artean. Norabide hori eskaintzen dit etorkizunak, eta lurrak agorrezinagoa eta oparoagoa dirudi alde horretan. Nire ibilaldiek marrartzuko luketen silueta ez litzateke zirkulu bat, parabola bat baizik, edo, hobeto esanda, kometa-orbita horietako bat, itzulerarik gabeko bihurgunetzat hartzen direnak, kasu honetan mendebalderantz zabalduko litzatekeena, non nire etxeak eguzkiaren lekua hartuko bailuke. Zenbaitetan, atzera eta aurrera ibiltzen naiz zalantzati ordu laurdenez, harik eta erabakitzen dudan arte, hamaikagarren aldiz, hego-mendebalderantz edo mendebalderantz abiatuko naizela. Ekialderantz ez noa behartuta baino; hegoalderantz, berriz, libre. Ezein negoziok ez narama hara. Zaila zait sinestea ekialdeko zeruertzaren atzean paisaia ederrak aurkituko ditudala, edo aski basatasun eta libertate. Ez nau kitzikatzen hara joateko aukerak; aitzitik, uste dut mendebaldeko zeruertzean ikusten dudan basoa etengabe zabalitzen dela sartaldeko eguzkirantz, eta han ez dagoela ez herri ez hiririk ni molestatzeko aski garrantzitsu. Utz iezadazue nahi dudan lekuan bizitzen; alde honetan hiria dago, hangoan basatasuna, eta geroz eta maizago uzten dut hiria bertan behera, basatasunera erretiratzeko. Ez nuke egitate hori hainbeste azpimarratuko, ez banu sinetsiko nire herrikideen joera nagusia antzekoa dela. Oregonerantz ibili behar dut, eta ez Europarantz. Eta nazioa norabide horretan ari da mugitzen, eta esan dezaket gizadiak ekialdetik mendebaldera egiten duela aurrera. Urte gutxian, hego-ekialderantzko migrazio-fenomeno baten lekuko izan gara, Australiako kolonizazioan; baina hori mugimendu atzerakoi bat iruditzen zaigu eta, lehenbiziko australiar belaunaldiaren izaera moral eta fisikoa kontuan harturik, oraindik ez da frogatu esperimendu arrakastatsua izan denik. Ekialdeko tartariarrek uste dute Tibeten mendebaldean ez dagoela deus. “Mundua han bukatzen da”, diote; “harago, ez dago ertzik gabeko itsaso bat baino”. Erremediorik gabeko Ekialdean bizi dira.

Ekialderantz goaz historia ikasteko eta arte eta literatura obrak ulertzeko, arrazaren urratsak berreginez; mendebalderantz etorkizunerantz bezala goaz, ekimen eta abentura izpirituz. Atlantikoa Lete erreka bat da, zeina zeharkatzean Mundu Zaharra eta haren erakundeak ahazteko aukera izan baitugu. Oraingoan ez badugu lortzen, beste aukera bat geratuko da beharbada arrazarentzat, Estigiaren ibaiertzetara heldu baino lehen; eta aukera hori Ozeano Bareko Leten dago, hiru bider zabalagoa baita.

Ez dakit zein esanguratsua den, edo zein neurritan den berezitasun-froga bat, gizabanako batek bere ibilaldi hutsalenean bat egitea arrazaren mugimendu orokorrarekin; baina badakit txori eta koadrupedoen sen migratzailearen antzeko zerbaitek –zenbait kasutan, jakin izan denez, urtxintxa-tribu bati eragin izan dio, mugimendu orokor eta misteriotsu batera bultzatuz, zeinetan, diotenez, ibai zabalak zeharkatzen ikusi baitituzte, bakoitza bere txirbilean, buztana bela gisa altxaturik, eta erreka estuagoetan zubiak eraikiz hiliko beren kideekin–, azienda udaberrian erasotzen duen sumina bezalakoa den zerbaitek, buztanean daukaten har bati egozten zaiona, nazio zein gizabanakoei eragiten diela, batzuetan etengabe eta beste batzuetan noizbehinka. Gure herriaren gainean ez du ezein antzara basati saldok karranka

egiten, baina horrek hemen neurri batean ondasun higiezinaren balioa desorekatzen du, eta ni agente komertziala banintz ziurrenik kontuan hartuko nuke halako nahastea.

“Askoz ere gehiago erromesaldian abiatzen direnean, eta kostalde ezezagunak bilatzen dituzte”.

Lekuko naukan ilunabar orok mendebalderantz joateko desira pizten dit, eguzkia gordetzen duena bezain mendebalde urrun eta ederra. Eguzkia egunero mendebalderantz doala ematen du, eta berari jarraitzeko tentatzen gaituela. Eguzkia da nazioek jarraitzen dioten Mendebaldeko Aitzindari Handia. Gau osoan amets egiten dugu zeruertzeko mendi-kate horiekin, nahiz eta lurrun hutsezkoak izan daitezkeen, azkenik eguzkiaren izpiek urreztatutak. Dirudenez, Atlantidako uhartea, eta Hesperideetako uharte eta lorategiak, paradisu lur baten tankerakoak, antzinakoen Mendebalde Handia izan ziren, misterioan eta poesian bilduak. Nork ez ditu irudimenean ikusi, ilunabarreko zeruari begira dagoela, Hesperideetako lorategiak, eta elezahar horien guztien oinarria?

Kolonek sentitu zuen mendebalderako joera, aurretik beste inork baino indartsuago. Eta obeditu egin zion, eta Mundu Berria aurkitu zuen Gaztela eta Leonentzat. Garai hartan, giza artaldeak urrutitik usaintzen zituen larre berdeak.

“Eta eguzkia muino orotan etzan da orain,  
Eta orain mendebaldeko badian hondoratu da;  
Azkenik, BERA jaiki da, eta estalki urdina arrakalatu du;  
Bihar baso fresko eta larre berrietara.”

Munduko zein lekutan aurki daiteke eremu bat, gure estatuen tamainak okupatzen duena bezain zabala, produktuetan hain emankor, aberats eta askotarikoa, eta aldi berean europarrentzat hain habitagarria, hau bezain? Micheaux-ek, hemengo zuhaitzetako batzuk baino ezagutzen ez zituenak, dio ezen “zuhaitz handien espezieak askoz ugariagoak dira Ipar Amerikan Europan baino; Estatu Batuetan ehun eta berrogei espezie baino gehiago daude, hogeita hamar oin baino garaiagoak; Frantzia ez daude hogeita hamar baino, neurri horretara iristen direnak”. Geroagoko botanikoak guztiz bat datoz ohar horiekin. Humboldt Amerikara etorri zen landaredi tropikalaren inguruko bere gaztetako ametsak egiaztatzerako, eta perfekzio handiaren begietsi zuen Amazoniako oihan primitiboetan, lurreko basaleku erraldoiaren, hain era elokuentean deskribatu zuena. Guyot geografoa, europarra bera, urrutiago doa, berari jarraitzeko prest nagoen baino urrutiago; ez ordea haxe dioenean: “Landarea animalientzat egin dagoen bezala, mundu begetala animalien munduentzat egin dagoen bezala, Amerika Mundu Zaharreko gizakiarentzat egin dago... Mundu Zaharreko gizakia bere bidean abiatzen da. Asiako lurralde garaiak utzirik, geltokiz geltoki jaisten da Europan. Bere urrats bakoitza aurrekoa baino gehiago den zibilizazio berri batek markatzen du, garapenerako ahalmen handiago batek. Atlantikora iritsita, ozeano ezezagun horren urertzean gelditzen da,

zeinaren mugak ez baititu ezagutzen, eta instant batez atzera itzultzen da bere urratsetara". Europako lurzoru aberatsa agortu duelarik, eta bere burua indarberritu, "orduan berrekingo dio mendebalderanzko bere ibilbide abenturazaleari, garai goiztiarretan bezala". Hona arte, Guyot.

Mendebalderanzko bulkada honek Atlantikoko langarekin topo egitetik sortu dira garai modernoetako merkataritza eta ekimena. Michaux gazteak dio, 1802ko bere *Alleghanies-en mendebalderako bidaiak*-en, berriki finkatutako mendebaldean ohiko galdera zela: "Munduko zein lekutatik zatoz?" Eskualde zabal eta emankor hauek, berez, munduko biztanle guztien elkargune eta herrialde komuna balira bezala.

Latinezko esamolde zaharkitu bat erabiltzearen, esan nezake "*Ex Oriente lux; ex Occidente FRUX*". Ekialdetik argia; mendebaldetik fruitua.

Sir Francis Head bidaiari ingelesak, Kanadako Gobernadore Nagusi izanak, diosku ezen "Mundu Berriko bai iparraldeko eta bai hegoaldeko hemisferioetan, Naturak ez ditu soilik bere lanak eskala handiago batean diseinatu; gainera, margolan osoa kolore distiratsuago eta aberatsagoekin pintatu du, Mundu Zaharra delineatu eta edertzeko erabili zituenak baino... Amerikako ortziek infinituki garaiagoak dirudite, zerua urdinagoa, airea freskoagoa, hotza biziagoa, ilargiak handiagoa ematen du, izarrak distiratsuagoak dira, trumoia ozenagoa da, tximista biziagoa, haizea indartsuagoa, euria gogorragoa, mendiak garaiagoak, ibaiak luzeagoak, basoak itzelagoak, lautadak zabalagoak". Adierazpen horrek balioko du, behintzat, Buffonek munduko alde honi eta bertoko ekoizpenei buruz idatziriko txostenari kontrajartzeko.

Lineok aspaldi esan zuen, "*Nescio quae facies laeta, glabra plantis Americanis*" (Amerikar landareen itxuran, bada ez dakit zer alai eta leuna); eta ez dut uste herrialde honetan *Africanae bestiae* dagoenik, afrikar piztiak, erromatarrek zeritzeten legez, edo asko jota ere oso gutxi, eta alde horretatik ere bereziki egokia da gizakiaren bizileku gisa. Kontatu digute ezen, Ekialdeko Indiako Singapur hiriko erdigunearen ia bost kilometroko itzulinguruan, tigreek urtero biztanleetako batzuk hiltzen dituztela; aldiz, bidaiaria Ipar Amerikako basoetan ia edonon etzan daiteke gauez basapiztien ikararik gabe.

Testigantza horiek adoregarriak dira. Ilargiak hemen Europan baino handiagoa badirudi, seguruenik eguzkiak ere handiagoa emango du. Amerikako ortziek infinituki garaiagoak badirudite, eta izarrek distiratsuagoak, sinesten dut egitate horiek bertoko biztanleen filosofia eta poesia eta erlijioa goratuko diren egunaren sinbolo direla. Epe luzera, beharbada, ortzi immateriala askoz ere garaiagoa irudituko zaio amerikar adimenari, eta izartzen dituen aieruak askoz ere distiratsuagoak. Klimak gizakiarengan eragin hori duela uste baitut, mendiko airean izpiritua elikatzen eta inspiratzen duen zerbait dagoen bezala. Ez al da gizakia eragin horien pean perfekzio handiago batera helduko, intelektualki zein fisikoki? Edo ez ote du garrantzirik zenbat egun lainotsu dauden giza bizitzan? Sinesten dut irudimentsuagoak izango garela, gure



pentsemenduak argiagoak izango direla, naturalagoak eta etereoagoak, gure zerua bezala; gure jakintza sakonagoa eta zabalagoa, gure lautaden antzera; gure adimena, oro har, eskala handiago batekoa izango dela, gure trumoi eta tximisten, gure ibai eta mendi eta basoen antzera; are, gure bihotzak bat etorriko direla gure barrualdeko itsasoekin, zabaleran, sakontasunean eta handitasunean. Apika, bidaiariari gure aurpegietan beretan agertuko zaio zerbait, berak ez jakin zer, *laeta* eta *glabra*-ri lotua, alaia eta lasaia. Bestela, zer helbururekin egiten du bira munduak, eta zergatik aurkitu zen Amerika?

Amerikarrei ia ez diet esan beharrik: “Inperioko izarrak mendebalderantz egiten du bidea”.

Benetako abertzale gisa, lotsaz beteko ninduke pentsatzeak Adam paradisuari egoera hobean zegoela, oro har, herrialde honetako edozein kaiku baino.

Massachusettsen, gure sinpatiak ez dira Ingalaterra Berrira mugatzen; hegoaldeetik aldenduta egon gaitzkeen arren, mendebaldea begiko dugu. Hortxe dago seme-alaba gazteenen etxea, Eskandinaviarrek herentziaren bila itsasora jo zuten bezala. Beranduegi da Hebreera ikasten aritzeko; garrantzitsuagoa da gaur egungo argota ulertzea.

Orain dela hilabete batzuk, Rhinen inguruko erakusketa bat ikustera joan nintzen. Erdi Aroko amets bat bezalakoa zen. Korrante historikoan behera flotatu nuen, imajinazioa baino zerbait gehiagorekin, Erromatarrek eraikitako zubien azpitik, geroagoko heroiek berreginak, antzinako hiri eta gazteluak igaro nituen, haien izen hutsak musika ziren nire belarrientzat, eta haietako bakoitza kondaira baten gaia. Ehrenbreitstein eta Rolandseck eta Koblenza ziren bertan, historian bakarrik ezagutzen nituenak. Bereziki interesatu zitzaizkidan ruinak zeuden. Bazirudien musika isil bat igotzen zela hango uretatik eta mahatsondoz jositako muino eta ibarretatik, Lur Santurantz abiatutako gurutzatuen musikaren antzekoa. Xarmak sorginduta flotatzen nuen, garai heroiko batera garraiatua izan banintz bezala, eta zalduntzaren atmosfera arnastera.

Handik gutxira, Mississippiren inguruko erakusketa bat ikustera joan nintzen, eta, ibaian gora nire bidea nekez egiten nuela, gaur egungo argiarekin, eta baporeak egurrez betetzen ari zirela ikusten ari nintzela, altxatzen ari ziren hiriak zenbatu nituen, Nauvoo-ko ruina berriak begietsi, indiarrei behatu korrontean zehar mendebalderantz zihoazela, eta, lehenago Moselari bezala, orain Ohiori eta Missouriri erreparatzen nien, eta Dubuque eta Wenona-ko labarrei buruzko kondairak entzun nituen –artean geroaz gehiago pentsatuz iraganaz edo orainaz baino–; ohartu nintzen hau beste mota bateko Rhin-korrante bat zela; gazteluetako oinarriak oraindik ezartzeko zeudela, ibaiaren gaineko zubi famatuak oraindik eraikitzeko; eta *hau berau zela garai heroikoa* sentitu nuen, nahiz eta guk ez jakin, heroia normalean gizakien arteko sinpleena eta ilunena izaten baita.

Mintzagai dudan mendebaldea ez da basatiaren beste izen bat baizik; eta hauxe esateko prestatzen egon naiz, basatasunak babesten duela mundua. Zuhaitz orok basatiaren bila luzatzen ditu zuntzak. Hiriek edozein preziotan inportatzen dute. Harengatik goldatzen eta nabigatzen dute gizakiek. Oihanetik eta basatasunetik datoz gizakia indartzen duten bizkorgarri eta algarak. Gure arbasoak salbaiak ziren. Otso batek Romulo eta Remori bularra emateari buruzko istorioa ez da elezahar zentzubako bat. Eminentziara altxatu diren estatu guztien fundatzaileek antzeko iturri basetatik atera zituzten elikadura eta kemena. Otsoak bularra eman ez zielako konkistatu eta egotzi zituzten inperioko umeak iparraldeko oihanetako umeek, hauek bai otsoak elikatuak.

Oihanean sinesten dut, eta larrean, eta artoa hazten den gauean. Gure tean basaperrexil, izei edo *arbor vitae*-zko infusio bat behar dugu. Desberdina da sendotzeko jatea eta edatea, edo sabelkeria hutsagatik. Khoikhoiek gogotsu irensten dituzte gordinik kuduen eta beste antilope batzuen hezur-muinak, normaltasunez. Iparraldeko gure indiar batzuek Artikoko elur-oreinen hezur-muin gordinak jaten dituzte, baita beste hainbat atal ere, adakeren puntak barne, bigun dauden bitartean. Eta, honi dagokionez, Pariseko sukaldariei aurrea hartu diete beharbada. Sua elikatzeko normalean balio duena hartzen dute. Ziurrenik, hobe da hori gizaki bat hazteko, ukuiluko behikia eta hiltegioko zerrikia baino. Emadazue basatasun bat, zeinaren ikustea ezin zibilizaziok ez dezakeen eraman –kuduen hezur-muin gordinak irensetetik biziko bagina bezala.

Badira soilgune batzuk basabirigarroen akordeak mugatzen dituztenak; hara migratuko nuke, kolonorik finkatu ez den lurralde basatietara, zeintzuetara, nik uste, jadanik egokitu bainaiz.

Cumming Afrikar ehiztariak diosku ezen elandaren azalari, hil berri dituzten antilope gehienenei bezala, zuhaitz- eta belar-lurrin gozoena dariela. Nahi nuke gizaki oro antilope basatiaren oso antzekoa izatea, hain naturaren zati eta eremu, non bere gorputzak berak gozoro ohartaraziko bailituzke gure zentzumenak bere presentziaz, eta oroitaraziko lizkiguke berak maizen ibiliko naturako eskualdeak. Ez dut satirikoa izateko joera sentitzen tranpa-jartzailearen berokiak musketa-arratoiaren usaina isurtzen duenean; usain gozoagoa zait merkatariaren edo erudituaren arropen normalean dariena baino. Hauen jantzitegietan sartu eta jantziak ukitzean, ez dizkidate oroitarazten maiz ibili dituzten lautada belartsuak eta larre loretsuak, ezpada merkatarien salerosketa hautsez beteak eta liburutegiak.

Azal beltzarana biziki errespetagarria da, eta gizakiari beharbada hobe doakio oliba kolorea zuria baino –basoetako bizilagunari. “Gizaki zuri zurbila!” Ez nau harritzen afrikarrek haren errukia sentitzea. Darwin naturalistak dio: “Gizaki zuri bat tahitiarraren alboan bainatzen, lorezainaren arteak kolorgetutako landarea bezalakoa zen, landare osasuntsu, berde ilunaren aldean, zelai zabaletan kementsu hazten dena”.

Ben Jonsonek deiadar egiten du: “Zeinen hurbil dagoen onetik, ederra dena!”

Halaxe, nik esango nuke: “Zeinen hurbil dagoen onetik, BASATIA dena!”

Bitza bat dator basatasunarekin. Biziena basatiena da. Oraindik gizakiaren menpe ez dagoenez, basaren presentziak gizakia indarberritzen du. Etengabe aurrera doanak, bere lanetatik inoiz atsedenik hartzeke, azkar hazi eta bizitzari eskakizun amaigabeak egiten dizkionak, beti aurkituko luke bere burua herrialde edo basatasun berri batean, bizitzaren material gordinaz inguratutik. Oihan primitiboetako zuhaitzetako zurtoin abailduetan gora eskalatuko luke.

Itxaropena eta geroa niretzat ez daude belardi eta soro landuetan, ez eta herri eta hirietan ere, baizik eta zingira zeharkaezin eta mugikorretan. Iraganean erostearen pentsatu nuen baserriren batek zergatik erakartzen ninduen aztertu izan dudanean, sarritan aurkitu dut basatza iragazgaitz eta hondogaberen batek erakartzen ninduela, izkina bateko estolda-zulo natural batek, metro koadro gutxikoa. Hura zen itsutzen ninduen bitxia. Bizirauteko gehiago lortzen dut nire sorterrira inguratzen duten zingiretatik, herriko lorategi landuetatik baino. Ez dago nire begientzako parterre aberatsagorik andromeda nanozko (*Cassandra calyculata*) geruza trinkoak baino, lurrazaleko eremu atsegin hauek estaltzen dituztenak. Botanika ezin daiteke joan hor hazten diren zuhaixken izenak esatetik harago –ahabia garaia, andromeda panikulatua, azalea eta errododendroa–, denak tente turba dardaratian. Maiz pentsatzen dut nire etxe parean zuhaixka gorri goibelezko masa bat izatea gustatuko litzaidakeela, bestelako lore-sail eta hesirik gabe, izei aldatu eta ezpel kimaturik gabe, are asfaltu-ibilaldirik gabe ere. Leku emankor hori nire leihopean izateak eskatuko luke kanpotik ekarritako eskorga bete lur ez gutxi, soilik sotoa aitzurtzean ateratako harea estaltzeko. Zergatik ez kokatu nire etxea, nire portxea, esparru horren atzean, eta ez nire aurreko patioa deitzen diodan bitxikeria-sorta eskas horren atzean, Naturaren eta Artearen apologia pobre hori? Nekeza da garbitzea eta itxura txukun bat ematea zurgina eta igeltseroa joan direnean, nahiz eta, egiten bada, oinezkoentzat egiten den etxeentzat bezainbeste. Gustu oneneko lorategiko hesia ez da inoiz ikergai atsegina izan niretzat; apaingarri konplexuenak, ezkur-erremateak, edozerk, berehala nekatzen eta atsekabetzen naute. Eraman zuen leiho-ertzak zingiraren mugaraino bertaraino (nahiz eta ez izan soto lehor baterako lekuri onena): alde horretatik ez legoke hiritarrentzako sarbiderik. Aurreko patioak ez daude bertan ibiltzeko eginak, baizik eta, gehienez ere, zeharkatuak izateko, eta atzetik sar zintezkete etxera.

Bai, perbertsotzat har nazakezuen arren, baldin eta giza arteak inoiz lortutako lorategi ederrenaren auzoan bizitzea proposatuko balidate, edo bestela zingira ilun baten ondoan, zingira aukeratuko nuke dudarik gabe. Zeinen alferrikakoak izan diren niretzat, hiritarrok, zuen lanak oro!

Hutsik gabe bizkortzen da nire gogoa, kanpoko atsekabearen arabera. Emadazue ozeanoa, basamortua edo basatasuna! Basamortuan, aire garbiak eta bakardadeak konpentsatzen dituzte hezetasun eta emankortasun falta. Horri buruz, Burton bidaiariak dio: “Zure morala hobetzen da; egiati eta adeitsu bihurtzen zara, abegitsu eta ausart... Basamortuan, likore biziek ez dute eragiten nazka baino. Gozamen suhar bat dago animalia-existentzia hutsean”. Tartariar estepetatik luzaro bidaiatzen ibili direnek diote: “Lur landuetara itzultzean asaldurak, zalantzak eta zibilizazioaren aztoramenak zapaldu eta ito gintuzten; aireak huts egiten zigula zirudien, eta une oro sentitzen genuen asfixiaz hiltzera gindoazela”. Nire buruaz gozatu nahi dudanean, baso ilunenak bilatzen ditut, trinko eta amaiezinenak, eta hiritarrarentzat tristeena den zingira. Leku sakratuan bezala sartzen naiz zingiran, *sanctum sanctorum* batean. Hortxe dago Naturaren indarra eta muina. Oihan basatiak lizun birjina estaltzen du, eta lurzoru bera ona da gizakientzat eta zuhaitzentzat. Pertsona baten osasunak hainbeste zelai-akre behar ditu bistan, nola haren baserriak gorotz-kargak. Hortxe daude elikatzen duten okela sendoak. Herri bat salbatzen da, ez horrenbeste han bizi diren gizaki zuzenengatik, baizik eta inguratzen duten baso eta zingirengatik. Udalerrri bat, goiko aldean oihan primitibo bat mugitzen daukana, eta beheko aldean usteltzen ari den beste oihan primitibo bat –halako herri bat aproposa da ekoizteko ez soilik artoa eta patatak, baizik eta poetak eta filosofoak ere, hurrengo garaietarako. Halako lur batean hazi ziren Homero, Konfuzio eta gainerakoak, eta halako basaleku batetik etorri zen otiak eta ezti basatia jaten zituen Erreformatzailea.

Animalia basatiak babesteak eskatzen du, oro har, oihan baten sorkuntza, bertan bizi edo hartaz balia daitezen. Gizakiarekin berdin. Orain dela ehun urte, gure kaleetan saltzen zuten geure basoetatik ateratako zuhaitz-azala. Zuhaitz landugabe eta mardul horietan bazegoen, nik uste, printzipio gogortzaile bat, gizakiaren pentsamenduen zuntzak sendotu eta finkatzen zituena. Ai ene! Dardararazi egiten naute nire sorterriko oraingo egun hauek, haien aldean degeneratuak, zeinetan ezin baituzu lodiera egokiko zuhaitz-azal kargarik lortu, eta dagoeneko ez baitugu brea eta trementina ekoizten.

Herrialde zibilizatuak –Grezia, Erroma, Ingalaterra– baso primitiboek eutsi dituzte, zeintzuk, antzina, zeuden lekuan usteltzen baitziren. Lurra agortzen ez den bitartean bizirauten dute. Zoritxarrez giza kulturarako!, gutxi espero daiteke nazio batetik, landare-oinarria agortua denean, eta behartuta dagoenean ongaria arbasoen hezurretatik eratorzera. Halakoetan, poetak bere buruari eusten dio soilik bere gantz-soberakin propioari esker, eta filosofoa hezur-muinetan gelditzen da.

Esaten da amerikarren zeregina “lur birjina lantzea” dela, eta “honezkero nekazaritzak hemen beste edonon ezezagunak diren proportzioak hartu dituela”. Uste dut nekazariak indiarra

ordezten duela baita zelaia salbatzen duelako ere, eta horrela bere burua indartsuago egiten duelako, eta zenbait ezaugarritan naturalago. Lehengo egunean, gizon batentzat lerro zuzen soil bat neurtzen ari nintzen, seiehun eta hirurogei metro luze zena, zingira batean zehar, zeinaren sarreran idatzita egon ahalko bailirateke Dantek eskualde infernutarren sarreran irakurri zituen hitzak: “Baztertu itxaropen oro, sartzera zoaztenek”, hots, handik inoiz atzera irteteko itxaropena; han bertan, behin batean, nire ugazaba ikusi nuen, bere jabetzan, leporaino hondoraturik zinez, eta bizia salbatzeko igerian, oraindik negua zen arren. Antzeko beste zingira bat zeukan, ezin izan nuena inondik inora neurtu, urpean baitzegoen erabat, eta guztiarekin ere, hirugarren zingira bati dagokionez, urrutitik neurtu nuena, ohartarazi zidan, bere senari leial, ez zela inolaz ere hura gabe geldituko, zeukan lokatzarengatik. Eta gizon horrek zingiraren inguruan zanga bat jartzeko asmoa dauka, osotasunaren gerriko gisa, berrogei hiletan zehar, eta, horrela, bere palaren magia salbatzekoa. Bakarrik aipatzen dut mota bateko adibide gisa.

Gure garaipen garrantzitsuenak lortzeko erabilitako armak, gurasoek seme-alabei erlikia gisa jarauntsi beharko lizkieketenak, ez dira ezpata eta lantza, baizik eta sega, soropil-ebakitzaila, pala eta lokatzerako aitzurra, larre askotako odolez herdoilduak, eta gogor borrokaturiko zelaletako hautsez belztuak. Haizeak berak bidali zituen indiarraren artasoroak larrera, eta bide bat erakutsi zuen, indiarrak ez zuena jarraitzeko trebetasunik izan. Ez zuen tresna hoberik txirla-oskola baino, lurrera gogor atxikitzeko. Nekazaria, ostera, goldez eta palaz armatua dago.

Literaturan soilik basatiak erakartzen gaitu. Asperdura ez da otzanaren beste izen bat baino. Hamleten eta Iliadan, eskritura eta mitologia guztietan atsegin zaiguna pentsaera libre eta basatia da, zibilizatu gabekoa, eskolan ikasten ez dena. Ahate basatia otzandua baino azkarragoa eta ederragoa den bezala, halaxe pentsaera basatia, pentsaera basahatea, zingiren gainetik hegan egiten baitu ihintza erortzen den bitartean. Liburu benetan ona, hain naturala da, hain ustekabekoa eta era adierazezinean eder eta perfektua, nola mendebaldeko larreetan edo ekialdeko oihanetan aurkitutako basalorea. Jenioa iluntasuna ikusgai egiten duen argia da, tximistaren distira bezala, zeinak jakintzaren tenplua bera suntsi baitezake, eta arrazaren etxean argitutako kandela ez bezala, egun arrunteko argiaren aurrean zurbiltzen dena.

Ingeles literaturak, juglaren garaitik Lakuetako Poetak arte –Chaucer eta Spenser barne, eta Milton eta are Shakespeare–, ez du arnasten bultzada aski fresko eta, zentzu honetan, basatirik. Literatura hori, Grezia eta Erroma islatuz, funtsean dago otzandua eta zibilizatua. Haren basatasuna oihan berde bat da, haren basatia Robin Hood bat. Beterik dago Naturarenganako maitasun adeitsuz, baina ez hainbeste Naturaz beraz. Ingeles kronikek jakinarazten digute noiz desagertu ziren animalia basatiak, baina ez noiz desagertu zen beren baitako gizaki basatia.

Humboldtten zientzia gauza bat da, poesia beste gauza bat. Egungo poeta, zientziaren aurkikuntza guztiak eta gizakiak pilatutako jakintza gorabehera, ez da Homero baino gehiago.

Non dago naturari espresioa ematen dion literatura? Poeta bat beharko luke, haizeak eta errekek bere zerbitzura jarri ahalko lituzkeena, bere ordeztu hitz egin dezaten; hitzak beren esanahi primitiboetara itzatzeko lituzkeena, nekazariet izotzak azaleratutako hesolak udaberriaren berriro lurrean sartzen dituzten bezala; hitzen jatorria bilatuko lukeena hitz horiek erabiltzen dituen aldiro, jatorri horiek bere orrialdera transplantatuko lituzkeena, erroetara itsatsitako lur eta guzti; haren hitzak hain lirateke egiazko eta garbi eta naturalak, non zabaltzen direla emango bailuke, kimuen antzera udaberria hurbiltzean, nahiz eta erdi itota geratuko liratekeen bi orrialde lizuntsuren artean, liburutegi batean, bai, urtero loratu eta fruitu emateko, beren espeziearen arabera, irakurle fidelarentzat, inguruko Naturarekin harmonian.

Ez dut ezagutzen aipatzeko moduko inongo poesiarik, Basatiarenganako irrika hori era egokian adieraziko lukeena. Alde horretatik begiratuta, poesiarik onena otzana da. Ez dakit non aurkitu, edozein literaturatan, antzinako zein moderno, aseko nauen kontakizunen bat, egokitu naitzaion Natura horri dagokionez. Ohartu zarete eskatzen dudana ezin dutela eman ez Augustoren edo Elisabethen aroek, ezta ere, laburtzeko, ezein kulturak. Mitologia hurbiltzen zaio beste edozer baino gehiago. Zenbat emankorragoa, greziar mitologiak erroak sartuak dituen Natura, ingeles literaturarena baino! Mitologia da Mundu Zaharrak eman zuen uzta, haren lurra ahitu baino lehen, fantasia eta irudimena zimeldu baino lehen; eta oraindik emankorra izaten da bere jatorrizko indarrari eusten dion aldiro. Gainerako literatura guztiek irauten dute soilik gure etxeei itzal egiten dieten zumarren antzera; baina mitologia Mendebaldeko Irletako dragoi-zuhaitz handiaren antzekoa da, gizadia bezain zaharra, eta, aurrera egin ala ez, gizadiak adina iraungo du; zeren beste literaturen usteltzeak sortzen baitu bera hazten duen lurra.

Mendebaldea prestatzen ari da bere elezaharrak ekialdekoei gehitzeko. Ganges, Nilo eta Rhineko ibarrek beren uzta bildu ostean, ikusteko dago Amazonas, Rio de la Plata, Orinoko, San Laurendi eta Mississippiko ibarrek zer emango duten. Agian, mendeak aurrera, amerikar askatasuna iraganeko fikzio bat bilakatuko denean -orainaldiko fikzio bat den moduan, neurri batean-, munduko poetak amerikar mitologian inspiratuko dira.

Gizaki basatien amets basatienak ere ez dira egia gutxiagokoak, nahiz eta baliteke ez izatea gomendagarriak egungo ingeles eta amerikarren artean komunena den zentzuarentzat. Egia guztiak ez dira gomendagarriak zentzu komunarentzat. Naturak badu leku bana aihenzuri basatirako zein azarako. Egiaren adierazpen batzuk oroimenari dagozkio, beste batzuk *zetzumen* hutsari, esan ohi den gisan, beste batzuk profeziari. Are, gaixotasun era batzuek osasun era batzuk profetiza ditzakete. Geologoak aurkitu du suge, grifo, dragoi hegalaria eta heraldikaren fantasiako beste edertasun zenbaiten figurek, prototipoak espezie fosilen formetan dituztela, gizakia sortua izan baino lehen desagertuak zirenak, eta horregatik

“adierazten dute existentzia organikoaren aurreko egoera baten ezagutza lauso eta iluna”. Hinduek amesten zuten lurra elefante baten gainean zetzala, eta elefantea dortoka baten gainean, eta dortoka suge baten gainean; eta garrantzirik gabeko kointzidentzia bat izan daitekeen arren, ez da lekuz kanpo egongo adieraztea berriki Asian dortoka fosil bat aurkitu dela, elefante bati eusteko bezain handia. Aitor dut fantasia basati horien zale naizela, denboraren eta garapenaren ordena transzenditzen dutenak. Adimenaren gozamen sublimeena dira. Eperrak ilarrak maite ditu, baina ez berarekin batera lapikora doazen horiek.

Laburbilduz, gauza on guztiak basatiak eta libreak dira. Bada zer bait musika-akorde batean, instrumentu batek sortua zein giza ahotsak –demagun korneta baten soinua udako gau batean–, zeinak bere basatasunaren bidez oroitarazten dizkidan, ironiarik gabe hitz egitearren, basapiztiak beren sorburuko oihanetan botatzen dituzten oihuak. Ondo uler dezaket haien basatasuna. Emazkidazu, adiskide eta bizilaguntzat, gizaki basatiak, ez otzanak. Salbaiaren basatasuna ez da sinbolo ahul bat baizik, pertsona onek eta maitaleek aurkitzen duten ankerkeria ikaragarriarena.

Maite dut etxe-abereak beren sortzetiko eskubideak berresten ikustea ere, berezko ohitura eta indar basatiak erabat galdu ez dituzteneko edozein ebidentzia; hala nola nire bizilagunaren behiak, udaberri hasieran, bere larretik ihes egin eta ibaian adoretzuki igeri egiten duelarik, korronte hotz, gris batean, ehunda hogeita bost edo ehunda berrogeita hamar metroko zabalerakoa, elur-urtzeak emendatua. Bufaloa da, Mississippia zeharkatzen. Nire begietara, balentria horrek duintasuna eransten dio saldoari, dagoeneko duindua. Senaren haziak azienden eta zaldien larru mardulen azpian babesten dira, haziak bezala lurreko erraietan, aldi mugagabe batez.

Ustekabekoa izaten da aziendaren edozein jolas. Egun batean, dozena bat idiz eta behiz osatutako talde bat ikusi nuen, alde batetik bestera korrika eta jolasean, arratoi erraldoien antzera, are katutxoan antzera. Burua astintzen zuten, buztana altxatzen, eta muino batean korrika zebiltzan gora eta behera, eta haien adarren bidez ohartu nintzen, eta haien jardueraren bidez, orein-saldoarekin duten antzaz. Ordea, maleruski, bat-bateko ISO! ozen batek berehala itzaliko zukeen haien txinparta, oreinkitik behikira murriztuko, eta saiheitsak eta nerbioak izoztuko, mugimendua bezala. Nork oihukatu dio gizadiari “Iso!”, ez bada Deabrua? Noski, aziendaren bizitza, gizaki askorena bezala, ez da lokomozio mota bat baizik; alde bat mugitzen dute aldi bakoitzean, eta gizakia, bere makineriaren bidez, zaldiaren eta idiaren arteko erdigunea bilatzen ari da. Zartailuak ukitu duen edozein gune aurrerantzean paralizaturik geldituko da. Nori bururatuko litzaioke edozein katu-saldo malguren saiheits bati buruz pentsatzea, behikiaren saiheitsaz mintzo garen bezala?

Pozten nau zaldiak eta joaldunak bezatu behar izateak, gizakiaren esklabo bilakarazi ahal izan baino lehen, eta gizadiari berari ere zabaltzeko moduko eromen-tanta basati batzuk gelditzeak, gizarteko kide otzan bilakatu baino lehen. Dударik gabe, pertsona guztiak ez dira maila berean

zibilizaziorako subjektu egokiak; eta gehienak, zakurrak eta ardiak bezala, herentziatzeko joera batengatik izanagatik otzan, hori ez da arrazoia besteen izaera makurrarazteko, maila berdinerara behertuak izan daitezten. Pertsonak oro har antzekoak dira, baina ugari izan ziren eginak, askotarikoak izan daitezten. Egitekoa arrunta baldin bada, pertsona batek beste edozeinek bezain ondo egingo du, edo ia; goi-mailakoa baldin bada, kontuan hartuko da bikaintasun indibiduala. Edozeinek estal dezake zulo bat haizea sar ez dadin, baina beste inork ez luke autoreak beste balioko ilustrazio hau bezain zeregin bitxia burutzeko. Konfuziok dio: “Tigrearen eta lehoinabarraren azalak, ondu ostean, zakurraren eta ardiaren azal onduak bezalakoak dira”. Baina benetako kultura baten eginkizuna ez da tigreak otzantzea, ardia odolzale bihurtzea ez den bezala; eta haien azalak zapatak egiteko ontzea ez da izan dezaketen erabilerarik onena.

Erdarazko pertsona-izenen zerrenda bat gainbegiratzean, edo ofizial militarrena, edo gai jakin bati buruz idatzi duten autoreena, berriz gogoratzen zait izen batean ez dagoela deus. Menschikoff izenak, esaterako, nire belarrietara ez du karraskari baten biboteak baino ezer gizatiarragorik, eta arratoi baten izena izan zitekeen. Poloniar eta errusiarren izenak guretzat direna, halaxe gureak haientzat. Ume-mordoiloaren arabera izendatu dituztela dirudi, *xirrixti-mirrixti*, *gerrena*, *plat*. Gogora datorkit izaki basatien talde handi bat, munduan barrena mugituz, eta bakoitzari abeltzainak bere dialektoko soinu zarpail bat ezarri dio. Gizakien izenak, noski, *Nei eta Mitu* zakur-izenak bezain merke eta zentzugabeak dira.

Uste dut abantaila filosofiko bat litzatekeela pertsonak soilik oro har izendatzea, ezagutzen diren bezala. Generoa ezagutzea litzateke bakarrik beharrezkoa, eta agian arraza edo aldaera, gizabanakoa ezagutzeko. Ez gaude prest sinesteko erromatar armadako soldadu pribatu bakoitzak izen propio bat zuela –ez dugulako suposatu izaera propio bat izango zuenik.

Gaur egun, gure benetako izen bakarrak ezizenak dira. Mutiko bat ezagutu nuen zeinari lagunek, bere energia bereziagatik, “Trumoi” deitzen baitzioten, eta ezizenak haren izen kristaua ordeztu zuen, egokiro. Bidaiari batzuek dioskute indiarrari hasiera batean ez zitzaiola izenik jartzen, baizik eta irabazi egiten zuela, eta haren izena haren fama zela; eta zenbait tributan balentria berri bakoitzaren ondoren izen berri bat eskuratzen zuen. Penagarria da jendeak izena soilik erosotasunagatik izatea, irabazi gabe ez izena ez fama.

Ez dut baimenduko izen hutsek niretzako bereizketak egitea; aldiz, gizaki guztiak saldoetan ikusten jarraituko dut. Izen ezagun batek ez dit pertsona baten arrotasuna gutxitzen. Baliteke salbai bati eman izana, bere aipu basati propioa, basoan irabazia, isilpean gordetzen duena. Salbai basati bat dugu gure baitan, eta litekeena da nonbait izen basati bat geure izentzat erregistraturik izatea. Ikusten dut nire bizilagunak, William edo Edwin epiteto ezaguna daukanak, jakarekin batera erantzten duela. Ez zaio atxikitzen lo edo haserre dagoenean, edo



pasio zein inspirazioren batek piztua. Halako egoeretan, iruditu izan zait bere jatorrizko izen basatia senideren batek ahoskaturik entzun dudala, hizkuntza bihurri baina melodiatsuren batean.

Hara hemen gure ama zabal, salbai eta inguratzalea, Natura, alde orotan datzana, hain eder, hain maitekor bere umeekin, lehoinabarra nola; eta hala ere, zeinen goiz utzi dugun haren bularra, gizarteratzeko, gizakien arteko interakzio baino ez den kultura horretan sartzeko, behin eta berriroko estaltze gisako bat, gehienez ere noblezia ingeles arrunta sortzen duena, bere mugara laster iristera destinatuturiko zibilizazio bat.

Gizartean, giza erakunde onenetan, erraza da goiztiartasun jakin bati antzematea. Oraindik hazten ari garen umeak izan beharko genukeenean, gizontxoak gara honezkerok. Emadazue kultura bat larreetatik simaur asko ekarriko duena, eta lurzorua sakonduko –eta ez fio dena soilik ongarri erregarriez, eta erreminta eta laborantza metodo perfektionatuez!

Aipatu dizkidaten begi minberatuko hainbat ikasle koitadu azkarrago haziko lirateke, intelektualki zein fisikoki, baldin eta, hain berandura arte esna egon beharrean, beren buruari ergelaren loaldia baimenduko baliote.

Baliteke argi hezigarriaren gehiegikeria ere izatea. Niepce-k, gizon frantses batek, “aktinismoa” aurkitu zuen, eguzki-izpien botere bat, efektu kimiko bat sortzen duena; eragiten diena granito-arrokei, harrizko egiturei eta metalezko estatuei “modu berdin suntsigarrian ordu eguzkitsuetan, eta, Naturaren emari ez gutxiago zoragarriengatik ez balitz, laster hilko lirateke, unibertsoa eskuhartze sotilenaren ukitu delikatuaren pean.” Baina, ohartu zenez, “egun argiz aldaketa hori izan duten gorputzek gaueko orduetan jatorrizko baldintzetara zaharberritzeko ahalmena dute, kitzikadura horrek jadanik eragiten ez dienean”. Hauxe ondorioztatu da hortik: “ordu ilunak hain beharrezko ditu sorkari inorganikoak nola gaua eta loa erresuma organikoak, dakigun bezala”. Ilargiak ere ez du gauero argirik ematen, aitzitik, iluntasunari leku egiten dio.

Ez nuke pertsona oro ikasia izatea nahi, ez eta pertsona ororen parte oro; era berean, ez nuke lurreko akre oro landurik nahi: zati bat laborantzarako izango da, baina zati nagusia larre eta oihan, eta ez soilik berehalako erabilgarritasunari begira, baizik eta urrutiko etorkizun baterako lizuna prestatzeko, landarediaren urteroko usteltzearen bidez.

Badira ume batek ikasteko bestelako letra batzuk, Kadmok asmatutakoez gain. Espainiarrek badute jakintza basati eta ilun hori adierazteko termino egoki bat, *Gramática parda*,

kalamatika, gramatika nabarra, zentzu komun mota bat, aipatu dudan lehoinabar beretik eratorria.

Entzun dugu badela Jakintza Erabilgarriaren Zabalkuntzarako Elkartea bat. Jakintza boterea dela esaten da, eta gisakoak. Nik uste Ezjakintasun Erabilgarriaren Zabalkuntzaren Elkartea baten behar berdina dagoela, Jakintza Ederra deituko dioguna, zentzu garaiago batean erabilgarria den jakintza: zeren, zer da ba ustezko gure jakintza harroaren zatirik handiena, ez bada zerbait dakigulako ustekeria, gure benetako ezjakintasunaren abantaila lapurtzen diguna? Jakintza deritzogun hori sarritan gure ezjakintasun positiboa da; ezjakintasuna, berriz, gure jakintza negatiboa. Urte luzetako lantegi pazient eta egunkarien irakurtzearen bidez -zeren, zer ote dira zientzia-liburutegiak egunkarien artxiboak baino-, pertsona batek hamaika mila datu pilatzen ditu, oroimenean jaso, eta orduan, bere bizitzaren udaberriren batean pentsamenduaren Zelai Handietan ibiltzera barneratzen denean, bera, nolabait esatearren, zaldia bezala doa belarretara, arnesa ukuiluan utzirik. Jakintza Erabilgarriaren Zabalkuntzarako Elkarteari, noizbehinka, esango nioke “zoaz belarretara. Aski luzaro jan duzu ukuiluko belar iharra. Udaberria heldu da, bere uzta berdearekin.” Behiak ere maiatzaren amaiera baino lehen eramaten dituzte larrean bazkatzera; nahiz eta nekazari ez-natural bati buruz entzun dudan bere behia ukuiluan gorde eta urte osoan belar iharrez elikatzen duela. Horrelaxe erabiltzen du sarritan bereazienda Jakintza Erabilgarriaren Zabalkuntzarako Elkartea.

Batzuetan, pertsona baten ezjakintasuna erabilgarria ez ezik ederra ere izaten da, bere ustezko jakintza, osteratzen, inutila baino okerragoa den bitartean, itsusia izateaz gain. Zein da tratua egiteko gizakirik onena: gai bati buruz ezer ere jakin ez eta, arras bakana dena, badakiena ezer ez dakiela; edo gaiari buruz zerbait jakin bai, baina dena dakiela uste duena?

Nire jakin-nahia aldizkakoa da; iraunkorra eta etengabea, aldiz, burua bainatzeko nahia, oinek ezagutzen ez dituzten atmosferetan. Erdiets dezakegun gorena ez da Jakintza, baizik eta Harmonia Adimenarekin batera. Ez dakit jakintza goren hori heltzen ote den zerbait definitiboagora, orain arte Jakintza deitu dugun ororen ezgaitasunaren bat-bateko errebelazio batera baino –aurkitzera gauza gehiago daudela zeruan eta lurrean gure filosofiak amestutakoak baino. Eguzkiak lanbroa argitzea da. Gizakiak ezin du jakin, horretan baino zentzu garaigoan, eguzkiari lasai eta kalterik gabe begiratu ezin dion bezala: “Ez duzu hori hautemango, gauza zehatz bat hautematen den bezala”, diote Kaldeako Orakuluek.

Badu otzankeriatik zerbait, obeditzeko legedi bat bilatzeko ohiturak. Materiaren legeak ikas ditzakegu ondo datorkigunean eta gure intereserako, baina bizitza bete batek ez du legerik ezagutzen. Zoritxarreko aurkikuntza bat da, baiki, aurretik lotuta geundela ez genekien gunera lotzen gaituen legearena. Bizi zaitetz aske, lanbroaren ume –eta, jakintzari dagokionez, guztiok gara lanbroaren umeak. Bizitzeko askatasuna hartzen duen pertsona lege ororen gaineratik dago, legegilearekin duen harremanari esker. “Eginbehar aktiboa da”, dio Vishnu Purana-k, “menpeko bihurtzen ez gaituena; jakintza da gure askatasunaren aldekoa: gainerako eginbehar

orok ez du balio gu nekatzeko baino; gainerako jakintza oro ez da birtuosoaren inteligentzia baino”.

Aipagarria da zeinen gertaera edo krisialdi gutxi dauden gure historietan, zeinen gutxi landu dugun gure adimena, zeinen esperientzia gutxi izan ditugun. Azkar eta oparo hazteaz ziur egon nahi nuke, nahiz eta nire hazierak berak neutraltasun aspergarri hori eragotzi, nahiz eta borrokatuz hazi behar den gau luze ilun, sargorietan, edo melankolia boladetan. Ondo legoke ere gure bizitzak tragedia jainkotiar bat izatea, eta ez komedia edo fartsa hutsal hau. Badirudi Dante, Bunyan eta beste batzuek guk baino gehiago landu zutela adimena: gure eskolek eta unibertsitateek kontuan hartzen ez duten kultura mota batera atxikirik zeuden. Mahomak ere, nahiz eta asko haren izena entzutean sumindu, askoz ere gehiago zuen bizitzeko, bai, eta hiltzeko, sumindu horiek normalean dutena baino.

Oso noizean behin, zenbait pentsamenduk bat bisitatzen dutenean, adibidez trenbidean dabilela, orduan, noski, entzun ere ez ditu egiten pasatzen diren bagoiak. Baina laster, lege saihestezin batengatik, gure bizitza aurrera doa eta bagoiak itzultzen dira.

“Haize gozo, noraezean ikusezin zabiltzana,  
Eta karduak makurrarazten dituzuna Loira ekaizsuaren inguruan,  
Mendiarte haizetsuetako Bidaiaria,  
Zergatik utzi zenuen nire belarria hain azkar?”

Pertsona gehienek gizarteak erakartzen dituela sentitzen duten bitartean, gutxi erakartzen ditu gogor Naturak. Naturarekiko harremanean, pertsona gehienak iruditzen zaizkit, beren trebetasunak gorabehera, animaliak baino gutxiago. Sarritan ez da harreman eder bat izaten, animalien kasuan bezala. Zeinen estimu gutxi dagoen gure artean paisaiaren edertasunarengana! Esan behar digute grekoek munduari Kosmos, Edertasun edo Ordena deitzen ziotela, baina ez dugu argi ikusten zergatik egiten ote zuten, eta, gehienez ere, datu filologiko bitxitzat hartzen dugu.

Nire aldetik, sentitzen dut Naturari dagokionez bizimodu mugalari gisako bat dudala, mundu baten bazterrean, sartu-irten laburrak eginez noizbehinka, eta nire abertzaletasuna eta estatuarekiko leialtasuna, zeinaren lurraldeetara erretiratzen naizela dirudien, piratarenak dira. Naturala deritzodan bizitza batengatik, pozik jarraituko nieke baita arima-argiei ere, zingira eta lokazti imajinaezinetan zehar, baina ez da ez ilargi ez ipurtargirik, harako bidea erakutsi didanik. Natura hain da pertsonaia zabal eta unibertsala, ezen inoiz ez dugu ikusi haren ezaugarri bakar bat ere. Nire jaioterri inguruan luzatzen diren zelai ezagunetatik dabilen ibiltariak, batzuetan bere burua aurkituko du bestelako lurralde batean, jabetza-eskrituretan deskribatuarekin bat ez datorrena, Concordeko mugetatik haragoko lurralde urrutiren batean

balego bezala, non haren jurisdikzioa bukatzen baita, eta Concord hitzak iradokitzen duen ideiak iradokia izateari uzten dion. Nik neuk neurtu ditudan baserri hauek, nik ezarri ditudan mugarri hauek, lanbroan zehar bezain ahul ageri dira; baina ez dago sendotuko dituen kimikarik; kristalaren azaletik desagertzen dira, eta margolariak pintatu zuen margolana ahulki azaltzen da azpitik. Normalean ezaguna zaigun munduak ez du arrastorik uzten, eta ez du urteurrenik izango.

Spaulding-en Baserrian ibili nintzen aurreko arratsalde batean. Ilunabarreko eguzkia ikusi nuen pinudi handientsu baten kontrako aldea argitzen. Urrezko izpiak basoko pasabideetatik zabaltzen ziren, jauregi batetik nola. Harrituta nengoen, antzinako familia miresgarri eta ospetsu bat Concord izeneko lurraldeko alde horretan kokatu balitz bezala, niretzat ezezaguna –eguzkia zerbitzari baitzuen–, herrixkako gizartean sartu gabekoa, inork gonbidatu gabekoa. Haien parkea ikusi nuen, haien jolaslekua, basoaz haraindi, Spauldingen ahabilarrean. Pinuek, hazi ahala, gablez hornitzen zituzten. Etxea ez zen nabarmena; zuhaitzak etxean barrena hazten ziren. Ez dakit barre-algara disimulatu baten soinua entzun nituenetz. Eguzki-izpitan bermatzen zirela zirudien. Seme-alabak dituzte. Zinez daude ongi. Baserritarraren orga-bideak, egongela erditik zeharkatzen dienak, ez die inondik inora enbarazu egiten, putzu baten hondo lohitsuak, zenbaitetan, zeru islatuen bidez ikusten den bezala. Inoiz ez dute Spauldingi buruz ezer entzun, eta ez dakite bizilagun dutenik ere –nahiz eta nik txistuka entzun nuen Spaulding, zaldiak etxean zehar gidatzen zituela. Ezerk ere ezin du haien bizitzen baretasuna berdindu. Haien armarrak liken soil bat da. Pinuetan eta haritzetan margotua ikusi nuen. Haien ganberak zuhaitzen adaburuetan daude. Ez dagokie politika. Ez zegoen laneko zaratarik. Ez nuen hauteman ehuntzen edo iruten ari zirenik. Haatik, bai aurkitu nuen, haizea baretu eta urrutitik entzun zitekeenean, imajina daitekeen ahopeko kanta goxo delikatuena, urrutiko erlauntza batekoa bezala maiatzean, zeina haien pentsamenduaren soinua baitzen beharbada. Ez zuten alferrikako pentsamendurik, eta ezezagunek ezin zuten haien lana ikusi, haien industria ez zegoen-eta korapilo eta eskrezentzietan bildua.

Zaila egiten zait ordea haietaz oroitzea. Ezinbestean desagertzen dira nire burutik, are orain ere, hizketan ari naizela, eta haietaz eta nire buruaz oroitzen ahalegintzen naizela. Soilik nire gomuta onenak biltzeko esfortzu luze eta serio baten ondoren itzultzen naiz berriro haien auzotasunaz kontziente izatera. Halako familiengatik ez balitz, uste dut Concordetik alde egingo nukeela.

Ingalaterra Berrian ohituta gaude esatera urterik urte gero eta uso gutxiagok bisitatzen gaituztela. Gure oihanek ez diete pagatxarrik eskaintzen. Horrela, irudi luke urterik urte gero eta pentsamendu gutxiagok egiten diola bisita hazten ari den pertsona bakoitzari, zeren gure adimenetako zuhaitzia suntsitua izan baita –anbizioaren premiagabeko suak elikatzeko salduak, edo xehagailura bidaliak– eta apenas geratzen da adaxkarik haiek pausa daitezen. Gurean dagoeneko ez dute ezer eraikitzen, ez dira ugaltzen. Garai atseginagoren batean, agian, itzal ahul bat jirabiraka igaroko da adimenaren paisaiatik, ideia baten hegalek proiektatua,

bere udaberriko edo udazkeneko migrazioan, baina, gora begira, ez gara gai pentsamenduaren beraren substantzia hautemateko. Gure hegodun pentsamenduak etxeko hegazti bilakatu dira. Jadanik ez dira hegaldatzen, eta soilik heltzen dira Shanghai eta Kotxintxinako handitasunera. Pentsamendu ha-a-andi haiek, aipatzen entzungo zenituzten pertsona *ha-a-andi* haiek!

Lurra besarkatzen dugu; zeinen gutxitan igotzen garen! Uste dut gure burua apur bat gehiago goratu genezakeela. Zuhaitz batera igo gitezke, behintzat. Behin batean, zuhaitz batera igoz aurkitu nuen nire burua. Pinu garai zuri bat zen, muino baten gainaldean; eta erretxinaz bete nintzen arren, merezi izan zuen, zeren mendi berriak aurkitu baintuen horizontean, aurretik inoiz ikusi ez nituenak –lur eta zeru askoz ere gehiago. Zuhaitzaren oinaren ondotik hirurogeita hamar urtez ibilita ere, ez nituzke ikusiko, dudarik gabe. Baina, oroz gain, nire inguruan aurkitu nituen -ekainaren amaiera aldera zen-, goialdeko adarretako muturretan soilik, kono-formako kimu gorri ñimiño eta delikatu gutxi batzuk, pinu zuriaren lore emankorra zeruari begira. Berehala eraman nuen herrixkara adar altuena, eta kalean zebiltzan epaimahaikide arrotzei erakutsi nien -auzitegi astea baitzen-, eta nekazariei eta egur-merkatariei eta egurgileei eta ehiztariei, eta bakar batek ere ez zuen aurretik halakorik ikusi, baina liluratuta zeuden, izar eroria balitz bezala. Eta antzinako arkitektoez mintzatzea, beren lanak zutabeetako goialdean burutzen zituztelako behealdean eta zati agerikoagoetan bezain perfektuki! Naturak hasieratik zabaldu zituen oihaneko lore ñimiñoak soilik zeruetarantz, pertsonen buruen gainetik eta hauek ohartu gabe. Bakarrik ikusten ditugu gure oinen azpian dauden loreak. Pinuek milaka milurtekotan uda oro garatu dituzte beren kimu delikatuak basoko adaxka altuenetan, Naturaren ume gorrien zein zurien buruen gainetik; haatik, nekez ikusiko zituen inoiz lurraldeko nekazari edo ehiztariren batek.

Batez ere, ezin dugu orainaldian ez bizitzea baimendu. Hilkor guztien gainetik zorionekoa, iragana gogoratzen galtzen ez duena bizitza igarokorreko une bakar bat ere. Gure filosofiak ez baldin badu gure horizontearen baitako oilategi bakoitzeko kukurrukua entzuten, atzean geratuko da. Soinu horrek oroitarazi ohi digu gure usantzak eta pentsatzeko ohiturak herdoiltzen eta zaharkitzen ari direla. Kukurrukuaren filosofia gurea baino garai berriago bati dagokio. Zerbait iradokitzen du, testamentu berriago bat, une honi dagokion ebanjelioa. Ez da atzealdean geratu; goiz jaiki da eta erritmoari eutsi dio, eta bera dagoen lekuan egotea garaiz ibiltzea da, denboraren lehenengo ilaran. Naturaren osasunaren eta sendotasunaren adierazpen bat da, mundu guztiarentzako harrotasun bat, udaberriko ezandaren gisako osasuna, musen iturri berri bat, denboraren azken instant hau ospatzeko. Kukurrukua bizi den lekuan ez da esklabo iheslarien kontrako legerik onartzen. Nork ez du bere maisua sarritan traizionatu, doinu hori azkenekoz entzun zuenez geroztik?

Hegazti horren akordearen meritua da kexu orotatik libre dela. Abeslariak erraz hunki gaitzake, malkoa zein barrea eragin, baina non da gugan goizeko gozamen aratza piztu dezakeen hura? Zenbaitetan, zabortegei goibetan, edo igande batean gure egurrezko espaloiko baretasun ikaragarria apurtuz, edo, apika, doluzko etxe bati beha nagokiola, oilar baten

kukurrukua entzuten dudanean, urruti zein hurbil, nire baitan pentsatzen dut “Guztiarekin ere, gutako bat ondo dago”, eta bat-bateko zurrusta batez nire onera itzultzen naiz.

Berebiziko ilunabar bat izan genuen azken azaroko egun batean. Larre batean nenbilen, errekatxo baten sorburua, eguzkia azkenik, doi gorde baino lehen, egun hotz, gris baten ondoren, horizonteko geruza argi batera iritsi zenean, eta goizeko argi-izpi leun eta biziena belar lehorraren gainera etorri zen, eta aurrez aurreko horizonteko zuhaitzen zurtoinetara, eta muinoko haritz-zuhaixken hostoetara, bien bitartean gure itzalak belardietan ekialderantz zabaltzen zirela, izpietako tita bakarrak bagina bezala. Momentu bat lehentxeago imajinatu ezingo genukeen moduko argi bat zen, eta airea ere hain zen epel eta barea, ezer ere ez zitzaion larreari falta paradisia izateko. Hausnartu genuenean hura ez zela fenomeno bakan bat, inoiz berriz gertatuko ez zena, baizik sekula betikoz gertatuko zela, arratsalde-kopuru infinitu batean, eta handik zebilen azken umea ere adoretuko eta lasaituko zuela, are loriatsuagoa izan zen.

Eguzkia larre erretiratu batean gordetzen da, ez duena etxerik ikusgai, hiriei eskaintzen dien distira eta edertasun guztiarekin, eta agian aurretik inoiz gorde ez den bezala; bertan ez dago zingiretako belatz bakarti bat baino, hegoak urrezta diezazkion, edo bere gordelekitik begira dagoen arratoi muturluze bat, eta istingaren erdian errekatxo bat zerrenda beltzekin, sigi-saga egiten hasi berri dena, astiro, usteltzen ari den motzondo baten inguruan. Han genbiltzan hain argi aratz eta distiratsuan, zimeldutako belar eta hostoak urreztatzen zituena, pentsatu bainuen inoiz ez nintzela halako urrezko korronte batean bainatu, uhin edo marmarrik gabea. Baso eta goragune ororen mendebaldeak Eliseoko mugaren antzera distiratzen zuen, eta eguzkiak, gure gibelean, artzain ezti bat zirudien, arratsean etxera ginderamatzana.

Beraz, Lurralde Santurantz ibiltzen gara, harik eta egun batean eguzkiak inoiz baino distiratsuago argituko duen arte, agian gure adimenetan eta bihotzetan distiratuko, eta gure bizitza osoak argi esnatzaile handi batekin argituko, hain epel eta bare eta urrezko nola ibar bateko argia udazkenean.